

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LARRINBEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Hutsak zuzentzea, ALHAOren 88. zenbakian, Larrinbeko eskola gizarte etxe bihurtzeko proiektuko obrak gauzatzeko kontratuari buruz argitaratutako iragarkian egindakoak

Hutsak antzeman dira ALHAOren 88. zenbakian (2016ko abuztuaren 8a) argitaratutako 2891 iragarkian, Larrinbeko eskola gizarte etxe bihurtzeko proiektuko obrak gauzatzeko kontratuari buruz argitaratutakoan; beraz, zuzendu egiten dira ondoren:

Honako hau dioen lekuan: 4- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 440.431,92 euro (BEZa aparte).

Hau esan behar du: 4- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 363.993,32 euro (BEZa aparte).

Honako hau dioen lekuan: 5- Bermeak:

Behin-behinekoa: 13.212,96 euro.

Hau esan behar du: 5- Bermeak:

Behin-behinekoa: 10.919,80 euro.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Larrinbe, 2016ko abuztuaren 8a

Lehendakaria

JUAN CARLOS RUIZ